# jokulariak 136

**EUSKAL AKTOREEN BATASUNAREN BOLETINA**
**BOLETÍN UNIÓN DE ACTORES Y ACTRICES VASCAS**
negua 2024 invierno



# ETORKIZUNA HEMEN DA


AISGE
es lo tuyo
Si eres actor o actriz audiovisual,
¡HAZTE SOCIO!
No te costará nada,
Te beneficiarás de nuestra labor asistencial y formativa
Y recibirás los derechos que te corresponden
aisge
www.aisge.es
Tel. 943 271 599



136

negua
invierno
2024
XX. Besarkada Sarien aurkezle eta zuzendariak. Zutunik: Kepa Errasti, Jaione Urtasun, Xanti Korkostegi, Alazne Astorga eta Ima Koiote. Belauniko: Mirena Nafarrete eta Hodei Arrastoa.
**Argazkia** Ainhoa Resano

06



16


08

18


# AURKIBIDE


04 **EDITORIALA**

06 **Zinemaldia**
Alizia Otxoa

08 **Besarkada Sariak**
Yan Pinto , Ekhiñe Famoso, Edu Errondosoro

14 **EDADEI 5**
Alicia Gómez Linares
Rakel Ezpeleta

16 **Jornadas de enfermedades profesionales en las Artes Escénicas**
Jessica Alonso

18 **EGINDAKO IKASTAROAK**
Amaia Irazabal, Aiora Sedano


# jokulariak


EAB Euskal Aktoreen Batasuna

EUSKAL AKTOREEN BATASUNAREN BERRIPAPERA

DONOSTIA
Portuetxe nº 23 A
4º Planta ofic. 4/08
20.018 Donostia
Tel. 943 31 48 22

BILBAO
Bilbaoeszena
c/ Juan de Gardeazabal 3
(entrada por c/Fica)
BILBAO 48.004
Tel. 944 33 37 86

eabdonostia@euskalaktoreak.eus
eabbilbao@euskalaktoreak.eus
www.euskalaktoreak.eus

**Koordinazioa eta edizioa**
Jon Koldo Vázquez
**Testuen zuzenketak**
Uzuri Guridi, Rakel Ezpeleta

**Maketazioa, diseinua**
I. Z.
**Inprimategia**
Antza
LG/DLSS168/2000


Gogoratu aldizkari hau denona dela eta gustura hartuko genituzkela zure iritzi eta artikuluak.
Recordad que esta revista es de todas y todos, y que gustosamente recibiremos tus opiniones y artículos.

Editoriala

# **ATZERA BEGIRA** AURRERA EGITEKO

2024a amaitzen da, eta atzera begiratzeko garaia da, egindako lana ebaluatzeko. Urte bizia izan da. Elkartearen batzar nagusiarekin hasi genuen eta bertan zuzendaritza-batzorde berriaren proiektua onartu zen. Laguntza horrek indarra eman zigun sektoreko erakunde eta elkarteekin egin beharreko bilera-sortarekin jarraitzeko, eta argi berdea eman zenizkioten ikusgarritasun proiektu berriei, formakuntza-eskaintzari eta Sormen edo Kultura Eskola bezalako zeharkako proiektuen jarraitasunari.

Oso zapore ona utzi digun urtea izan da, ahalegin handia egin behar izan dugun arren. Are gehiago, azken hiruhileko honetan, EAB osatzen duzuen pertsonekin harreman zuzenagoa izateko aukera izan baitugu. Irailaren amaieran Zinemaldian bildu ginen, elkargune berri bat ezarri genuen: Glamourraren atzean. Alizia Otxoak horren berri ematen digu Jokulariak 136 honetan. Astebete geroago, Besarkada sari-banaketaren hogeigarren ekitaldia ospatu genuen, eta, bertan, zuetako askorekin lehen aldiz bat egiteko aukera izan genuen. Gure ofizioaren ospakizun hau aurrera eramatea ahalbidetu zuten pertsona guztiak eskertu nahi ditugu. Nahiz eta baliabide gutxi izan, beste ospakizun handi batzuetatik ez zen asko urrundu, eta aurten afiliatu gehien izan dituen ekitaldia izan da. Bertan bildu ginen profesionalen arteko kolektibo sentsazioa, babes sentsazioa eta maitasun sentsazioa transmititzea zaila da lerro gutxi batzuetan, eta horregatik eskaintzen diogu edizio honetako gune nagusia. Eskerrik asko bihotzez hurbildu zinetenoi!

ADDEk EAB, Dantzagunea, BAD eta LABOrekin elkarlanean antolatutako EDADEI5 topaketak ere izan ziren. Alicia Gómez Linaresek Bilbon egindako lehen jardunaldia laburbildu du eta Rakel Ezpeletak Donostian izandako bigarrena.

ConArtek antolatutako Arte Eszenikoen Gaixotasun Profesionalen Jardunaldien berri ere ematen dugu ale honetan. Jessica Alonsok, gure afiliatuak, oraindik lantzeko ditugun alderdi horietako baten inguruan duen ikuspegia azaldu digu: osasun mentala.

Eta tartetxo bat geratzen zaigu Pello Gutierrezen Interpretazio minimalistako tailerraren ingurukoak kontatzeko, Aiora Sedano eta Amaia Irazabalen esperientzien bidez.

Ekimen guzti hauen artean, ConArten sartzeko denbora eman digu, erabaki-organoetan ordezkaritza zabalarekin gainera, ezohiko batzarrean biltzeko tartea aurkitu dugu, ikus-entzunezko akordio autonomikoaren inguruan elkartearen helburuak zehazteko eta negoziazio berri bati hasteko aukera ere izan dugu. Ez da gutxi! Eta, esan bezala, orain elkartea osatzen dugun pertsona guztiei dagokigu egindakoaren ebaluazioa egitea. Gelditzeko unea da, hausnarketarako eta urrats berriak emateko unea, 2025era hurbiltzen ari baikara eta aldaketak datoz. Batez ere ekainean, zuzendaritza batzordea berritzeko kideak beharko baitira. Norbait animatzen da?

**EABko zuzendaritza-batzordea**

# **MIRAR HACIA ATRÁS** PARA AVANZAR

Acaba el 2024 y es tiempo de mirar atrás para evaluar el trabajo realizado. Un año intenso que comenzó con una asamblea donde se aprobó el proyecto de la nueva junta directiva. Un apoyo que nos dio energía para seguir con la ronda de reuniones con las instituciones y asociaciones del sector, que dio luz verde a la continuidad de los proyectos transversales como Sormen o Kultura Eskola, que definió la oferta formativa que ofreceríamos a nuestra afiliación y que validó los nuevos proyectos de visibilización.

Ha sido un año que, aunque haya requerido mucho esfuerzo para las personas que conformamos este nuevo equipo, nos deja muy buen sabor de boca. Más aún, en este último trimestre en el que hemos tenido la posibilidad de tener un mayor contacto directo con la diversidad de personas que conformáis EAB. A finales de septiembre nos reunimos en el Zinemaldia. Establecimos un nuevo espacio de encuentro al que llamamos: Detrás del Glamour. Alizia Otxoa nos da cuenta de ello en este Jokulariak 136. Una semana después celebramos la vigésima edición de la gala de entrega de premios Besarkada, donde tuvimos la posibilidad de coincidir por primera vez con muchas de vosotras y vosotros. Estamos realmente agradecidas a todas las personas que hicieron posible poner en pie esta celebración de nuestro oficio. Una gala que, a pesar de los escasos recursos con los que se contaba, no distó mucho de otras grandes celebraciones y fue el evento al que mayor número de afiliadas y afiliados asistieron este año. La sensación de colectivo, de apoyo, de cariño entre las y los profesionales que allí nos reunimos es algo que es difícil de transmitir en unas pocas líneas y es por eso que le dedicamos el espacio central de esta edición. Eskerrik asko bihotzez hurbildu zinetenoi!

Otro espacio de reunión fueron los Encuentros EDADEI5, organizado por ADDE, en colaboración con EAB, Dantzagunea, BAD y LABO. Alicia Gómez Linares resume la primera jornada realizada en Bilbao y Rakel Ezpeleta se encarga de la segunda que aconteció en Donostia.

Las Jornadas de enfermedades profesionales de las Artes Escénicas organizadas por ConArte también tienen cabida en este número, para lo cual nuestra afiliada Jessica Alonso nos acerca su visión en torno a uno de esos aspectos en los que aún nos queda mucho por trabajar: la salud mental.

Y aún nos queda espacio para dar fe del buen hacer de Pello Gutiérrez, que impartió un taller de interpretación minimalista. Aiora Sedano y Amaia Irazabal nos cuentan su experiencia en el curso.

Y entre evento y evento, nos ha dado tiempo a entrar a ser parte de ConArte con una amplia representatividad en los órganos de decisión, reunirnos en asamblea extraordinaria para definir los objetivos de la asociación en torno al acuerdo autonómico audiovisual y empezar una nueva negociación. No es poco. Y como decíamos, ahora nos toca hacer la evaluación de lo realizado a todas las personas que conformamos esta asociación, no solamente al equipo de trabajo. Es el momento de parar, dedicarle un tiempo a la reflexión y dar nuevos pasos porque se acerca un 2025 muy apetecible y con cambios. Sobre todo, en junio, cuando tendrán que entrar nuevos miembros en la Junta Directiva. ¿Alguien se anima?

**Junta directiva de EAB**

#SSIFF2024



Edurne Azkaratek Palestinako herriaren genozidioa salatzeko aprobetxatu zuen hitzaldia, STOP GAZAren pegatina bat poltxikotik atera zuen eta bularrean itsasi zuen zuzenean. Mezua oharkabean ez pasatzeko

Glamourraren atzean. Zero lerroa: Ezkerretik eskumara Iñake Irastorza, Jon Olivares, Telmo Irureta, Belén Cruz, Mario Pardo, Ivette Filanc eta Martxelo Rubio



El encuentro se puede ver online en su integridad a través del enlace QR

Este año la participación de EAB en el Zinemaldia ha aumentado. Por una parte, EITB nos brindó la oportunidad de entregar un premio en la Gran Gala del Cine Vasco, que denominamos Bultzada y que se lo otorgamos a Edurne Azkarate. Se trata de un premio que pretendemos que sea anual y además, queremos que ese empujón se multiplique y podamos también impulsar nuestra afiliación en las categorías de Teatro y Televisión, otorgando otros dos premios en el marco de festivales vascos dedicados a esas disciplinas. Aún nos queda por trabajar en torno a la presencia de las actrices y actores vascos en la gala, esperamos que el año que viene sea mayor y haremos lo que esté en nuestra mano para que así sea. Sin embargo, uno de los proyectos que más nos enorgullece es la jornada de diálogos con profesionales destacados del sector que organizamos junto a Zinemaldia y que titulamos “Detrás del glamour. Actores y actrices ante los nuevos paradigmas de contratación”. Alizia Otxoa, nos hace un breve resumen de lo allí acontecido.




Ezkerretik eskumara Alizia Otxoa, Sara Mora, Yolanda Serrano, Eva Leira y María José Zulueta

Zuetako askok jakingo duzuenez, irailak 20an, Zinemaldiarekin hainbat bilera izan ondoren, adostutako mahai-ingurua izan genuen. "Glamourraren atzean" izenburupean, sortu diren kontratazio paradigma berrien aurrean, aktoreon egoeraz hitz egiteko.

Larri ibili ginen gonbidatuak baieztatzen, Zinemaldiak gonbidapenak zuzenean egin behar zituelako. Baina lortu genuen eta, nire ustez, oso parte hartzaile interesgarriekin.

Batetik Sara Mora, Conarte, UARM eta UAAGeko abokatua, konbenioaren eta Artistaren Estatutuaren negoziaketetan parte hartu duena.

Berari eskatu genion hasteko, oinarria jartzeagatik, orain arte lortu denarekin eta oraindik lortzeko dagoenarekin.

Bestetik, Yolanda Serrano eta Eva Leira casting zuzendariak. Beraiei ez zitzaien iruditzen sare sozialek edota influencerrek gure kontratazioan eragina zutenik. Haiek beti talentoa aukeratzen zutela. Arazoa gidoietan zegoela, gidoi asko gutxi batzurentzat eta ezer ez besteentzat, batez ere adin ertaineko emakumeentzat.

Maria José Zulueta estatuko errepresentanteen elkartearen idazkaria ados zegoen Eva eta Yolandak esandako azkenekoarekin baina ez sareen edota adimen artifizialaren eraginaz eta eztabaida piztu zen.

O lerro bat osatu genuen ere gure hainbat afiliaturekin baina, egia esanda, ez zuten hitz egiteko aukera handirik izan, denboraz pasa ginelako. Publikotik ere, hainbatek hitza eskatu zuen baina mahaitik ez genuen ikusi.

Hala ere, dinamikoa izan zen eta eztabaida interesgarriak sortu ziren.

Behin Glamourraren atzean marka sortua, datorren urterako berriro saiatuko gara mahai-ingurua antolatzen. Agian botere eta bestelako abusuez?

**Alizia Otxoa**

Aktore, EABko Idazkari Nagusia



EABko zuzendaritza batzordeak ireki zuen gala. Ezkerretik eskumara Patxi Pérez, Nazaret Froufe, Alizia Otxoa, Rakel Ezpeleta eta Marijo González

# BESARKADA SARIAK

Galaren argazkiak **Ainhoa Resano**

*Urrian Besarkada sarien hogeigarren edizioa ospatu genuen. Galak ikusgarritasun gutxiago duten aktoreen lanaren errekonozimendua zuen ardatz. Alazne Astorga, Ima Koiote, Mirena Nafarrete, Jaione Urtasun eta Xanti Konkorstegi, guztiak euren karreren hasieran dabiltzan aktoreak, erritmo eta profesionaltasun handiarekin aurkeztu zuten, Hodei Arrastoa eta Kepa Errastiren gidoi eta zuzendaritza bikainari jarraituz. Campos Antzokiak palkoak ireki behar izan zituen jendea hartzeko, ikusleen artean arte eszenikoetako ikasleak zeuden eta haien begiradatik egin nahi izan dugu ekitaldiaren kronika.*

Besarkada sarien gala ikusteko esteka




Ezkerretik eskumara
Ima Koiote, Mirena
Nafarrete, Alazne Astorga,
Jaione Urtasun eta Xanti
Konkorstegi

Gala dinamiko eta entretenigarria iruditu zitzaidan, sariak banan-banan eta automatikoki eman baino, aurkezleek umorez eta modu komikoan aurkeztu zuten.
Ekitaldiari hasiera emateko Xanti Korkostegik galaren inguruko kanta bat antzeztu zuen musikal estiloan, honela besaulkietako giroa animatu zuen.
Nominatutako aktoreak presentatzeko, aurkezleek izendatutako antzerki obra edota pelikularen parodia bat egiten zuten. Honek, kokatzen lagundu zidan, obren erreferentziak topatzen, eta barre asko egin eta entzun nituen.
Aurkezleek premio tarteetan egindako eskets laburrak, eta publikoarekin egiten zituzten interakzioak, dinamismo eta freskotasuna eman zioten galari.

Galak momentu polit eta hunkigarri asko eskeini zizkigun, goraipatu nahi dudan momentua Ane Gabarainek Edurne Azkarate oholtza gainera igo eta bere saria oparitzea izan zen, ondorengo belaunaldiei lekua utziz eta talde lanaren garrantzia azpimarratzen.
Galari amaiera emateko saridunak oholtza gainean egonda, hasierako kanta dantzatzen bukatu zuten.
Oso arratsalde ederra izan zen, arte eszenikoen pasioa partekatzen dugunoi elkartzeko eta elkar ezagutzeko aukera paregabea izan genuen.



**Yan Pinto**
BAI, Bizkaiko Antzerki Ikastegia




Izendatu eta irabazle guztiak galaren aurkezle eta zuzendariekin batu ziren oholtza gainean

Ekitaldi honek euskal antzerki, zinema eta telebista munduko artista nabarmenak saritu zituen, eta aurten ere, arlo artistikoari dagokion garrantziaz gain, ikusgarritasunaren eta elkartasunaren balioak azpimarratu ziren. Ospakizuna umorez, musikaz eta mezu politiko eta sozialez josita egon zen.
Alizia Otxoak, EABko idazkari nagusiak, Palestinako herriaren aldeko elkartasuna adierazi zuen, eta antzokian bildutako askok mezu hori babestu zuten. Gainera, gala honetan, Euskal Herriko aktoreen batasuna eta kolektiboaren garrantzia aldarrikatu zen.
Ikusgarritasuna eta elkartasuna ardatz nagusi izatea ekimen ausarta eta beharrezkoa dela iruditzen zait. Euskal kultura eta artea sustatzeko lanean, horrelako espazioak ezinbestekoak dira, eta gala hau horretarako urrats erabakigarria izan zen.

Gala hau artearen eta kulturaren ospakizun izateaz gain, gogoetarako eta aldaketarako espazio bihurtu zen. Ekitaldiko mezu sozial eta politikoek balio erantsia eman zioten gauari. Euskal Aktoreen Batasunak argi utzi du artea ez dela bakarrik entretenimendurako tresna; kulturaren bidez gizartearen aldaketarako eragile ere izan daiteke. Beraz, honelako ekitaldi gehiago behar dira, euskal kultura eta artearen garrantzia mundu mailan aitortzeko. Besarkada Sarien gala, edizioz edizio, hori lortzeko bidean aurrera doan adibide bikaina da.



**Ekhiñe Famoso**
TAE, Donostiako Arte Eszenikoen Tailerra

# **SARITUAK** PREMIADAS/OS

### OHOREZKO SARIA
Golden Apple Quartet



Ezkerretik eskumara: Loyola Garmendia, Kike Otxoa, Jose Linaje eta Edu Errondosoro

## Un buen menú

El Premio de Honor fue para el icónico Golden Apple Quartet, que recibió el galardón de la mejor manera que saben hacerlo: cantando. Su actuación puso broche de oro a una carrera de más de tres décadas dedicadas a la música y el humor. Un mes después de recibir el premio uno de sus antiguos integrantes falleció. Edu Errondosoro nos habla de Cruz Maria Larrañaga Urain, *Larra*. Adiorik ez.

Aunque fuimos cuatro los que recogimos el premio, sin duda nos sentimos encantados de compartirlo con los demás compañeros que durante toda nuestra historia de cantactores compartieron escenarios con nosotros. En especial queremos poner el foco de atención en nuestro compañero Larra por su reciente y triste desaparición. Estuvo con nosotros desde las épocas más tempranas del cuarteto. Todo comenzó como un juego, como una diversión de amigos a los que les gustaba cantar y allí estaba él apuntándose a esa juerga como a muchas otras. De ahí su sobrenombre: “Txaltxas”. Estaba en todas. Con su presencia escénica y su voz profunda, que más que grave estaba en pronóstico reservado, imprimió un carácter único a los Golden Apple Quartet. Fue compañero de escenario; de ensayos; de viajes y, sobre todo, de mesas y risas. Compañero de vida durante largos años. Esa misma vida que nos separó durante un tiempo pero que nos volvió a unir en el escenario en nuestra gira de despedida a su paso por Donosti en el Antzoki Zaharra. Mucha emoción. Ignorábamos que fuese una doble despedida. Se ha ido un “xelebre”. Un hombre generoso y tremendamente popular. Siempre nos ocurría en los viajes con él; aun yendo a actuar al pueblo más perdido de la geografía, siempre había alguien que le conocía; por eso, vaya a dónde vaya ahora, cuando llegué allí, se escuchará: Larraaaaa….!



Cruz Maria Larrañaga Urain, “Larra”

**Edu Errondosoro**

# **SARITUAK** PREMIADAS/OS

**TELEBISTAN**
**Emakumezko aktore onena**
Itziar Atienza
**Gizonezko aktore onena**
Gorka Otxoa

**ZINEMAN**
**Emakumezko aktore onena**
Ane Gabarain/Edurne Azkarate
**Gizonezko aktore onena**
Eneko Sagardoy









**ANTZERKIAN**
**Emakumezko aktore onena**
Olatz Ganboa
**Gizonezko aktore onena**
Kepa Errasti

**ERREBELAZIO SARIAK**
Leire Ormazabal eta Sambou Diaby









# EDADEI 5



El 5º Encuentro de Danza, Arte Dramático, Educación e Investigación (EDADEI5) se ha celebrado este otoño durante dos jornadas. La primera tuvo lugar el 19 de octubre de 2024, programada en el Festival BAD en la sede de Dantzerti (Bilbao) y, la segunda jornada fue el 17 de noviembre en el Festival LABO XL, en la sede Kutxa Kultur en Tabakalera (Donostia). Los temas sobre los cuales se han presentado ponencias, comunicaciones bailadas, talleres prácticos y mesas redondas han sido la creación, la educación y la investigación artística.

Impulsado por la Comisión de Educación de la Asociación de Profesionales de la Danza del País Vasco (ADDE) desde 2019, esta quinta edición se ha organizado con la complicidad del Festival BAD, Festival LABO-XL, EAB, Dantzagunea y Dantzerti, y ha sido patrocinado por el Departamento de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco.

La finalidad de estos encuentros es facilitar el diálogo entre agentes de la academia, la escena, las administraciones y el público, para contribuir a la construcción colegiada de un discurso argumentado en materia de educación e investigación en danza y arte dramático que facilite la activación de medidas concretas en materia de política cultural y educativa, a la vez que promueva el desarrollo profesional del sector de las artes escénicas y el desarrollo social.

La primera jornada, a la que asistieron cerca de treinta personas, se desarrolló de forma amable y distendida en ambas lenguas cooficiales. Fue inaugurada por Noemi Santisteban, directora de Dantzerti; Eugenio Jiménez y Mikel Rivero, director y técnico, respectivamente, de la Dirección de Centros y Planificación del Gobierno Vasco y por Alicia Otxandategi, directora del Festival BAD. Posteriormente, Laida Aldaz y dos intérpretes explicaron y mostraron *In Perspective*, pieza site-specific que se presentaba en el festival BAD. Después, dos exalumnas de Dantzerti, Nagore Tamayo y Natalia Belén Fernández, bailaron la investigación performativa fruto del TFG de la primera. Seguidamente, Lourdes Cilleruelo, directora del Departamento de Didáctica de la Expresión Musical, Plástica y Corporal, expuso el proyecto de formación que se explica en el libro recién editado por la Editorial Octaedro: *De lo disciplinar a lo interdisciplinar. Formación artística para docentes*. Finalmente, Alicia Gómez Linares moderó una mesa redonda con todos los participantes anteriores a los que se unieron, Fernando Sáenz de Ugarte, gestor y productor de Dantzaz, Sandra Barrio, responsable del Basque District of Culture and Creativity y el actor, profesor doctor y miembro de EAB, Jon Urraza.

**Alicia Gómez Linares**
Comisión de Educación de ADDE





## ¿Qué (se) aportan EAB y EDADEI?

La segunda jornada de EDADEI comenzó con un taller práctico en el que la bailarina Irene Naranjo compartió el método de creación coreográfica con el que construyó *Jaranda*, pieza que había mostrado en el festival el día anterior. Le siguió la ponencia ***Retos en la investigación doctoral en artes escénicas con metodologías de práctica artística***, Rakel Ezpeleta ofreció unas bases histórico-geográficas sobre cómo se ha entendido y aplicado la práctica como investigación en diversos entornos, y presentó su tesis *Configuraciones de la identidad actual en la escena experimental vasca* (UAB, 2023), que combina análisis artístico y práctica teatral para abordar cuestiones identitarias. El encuentro finalizó con una mesa redonda en la que intervinieron, además de las dos artistas precedentes, la Directora de Promoción de la Cultura de GV/EJ, Aitziber Atorrasagasti, y la bailarina e investigadora Bertha Bermúdez en representación de Dantzagunea Gipuzkoa. Moderaba Alicia Gómez Linares, de ADDE.

Las aportaciones de todas las participantes fueron muy estimulantes. Aprendimos que existe una línea de subvención del GV/EJ específicamente pensada para la investigación con práctica artística (articulada, de momento, dentro de las ayudas a la creación coreográfica, pero abierta a cualquier disciplina). Aprendimos que, aunque hasta ahora no haya habido cauces fáciles ni homogéneos para estas actividades, se han ido proponiendo ayudas y actividades puntuales para mejorar la situación, tanto desde instituciones y equipamientos públicos (EJ/GV, Dantzagunea, Alhóndiga AZ…) como desde iniciativas particulares. EDADEI es, de hecho, un ejemplo de ello. Aprendimos también que, gracias a la nueva Ley de Enseñanzas Artísticas Superiores (1/2024 del 7 de junio) la relación entre mundo académico y mundo artístico va a poder integrarse mejor a partir de ahora y, por fin, la investigación mediante la práctica artística tendrá un papel destacado ahí.

EDADEI contribuye al diálogo y encuentro entre artistas que se dedican a actividades dispares como la creación e interpretación, la docencia y la investigación, y entre profesionales que se dedican a dos o tres de esas actividades. La mayoría de las veces, tales profesionales viven esa múltiple dedicación de una manera separada en cada uno de esos ámbitos, sin poder integrar todo su conocimiento, experiencia y recursos en proyectos integrativos que reúnan los tres aspectos. A veces nos entra cierta sensación casi esquizofrénica al trabajar, cuando parece que respondemos a tres realidades profesionales aisladas e incomunicadas entre sí. Estos encuentros sirven, entre otras cosas, para paliar esa sensación, gracias a las distintas visiones integrativas que se comparten. Además consiguió generar un diálogo fructífero en los corrillos improvisados post evento. Pero es cierto y reseñable que la asistencia de público y, en particular del sector, fue más bien escasa. Es una lástima. Debemos preguntarnos, desde la organización de EDADEI y desde EAB (y toda su afiliación) qué podemos hacer mejor para aprovechar los recursos (humanos, logísticos, económicos y de tiempo) puestos al servicio de estos encuentros, qué podemos hacer para que los y las distintas artistas que se relacionan con nuestras entidades (ADDE, EAB, Dantzerti…) y el público en general, pueda sacar provecho de estas oportunidades.

Considero importante que haya más presencia activa del sector actoral en estos encuentros: para aprender de lo que nos ofrecen el resto de compañeras, de manera que vislumbremos nuevas maneras y cauces para nuestro trabajo creativo; y para aportar nuestro punto de vista como actores y actrices, que está aún menos representado que el de la danza. El conocimiento encarnado, el conocimiento tácito y la intuición creativa son valores que compartimos con otros profesionales de las escénicas. El modo singular en que podemos utilizarlo en la investigación, la formación y la creación teatral es un valor añadido.

**Rakel Ezpeleta**
Coordinadora de Edadei en EAB

Ezkerretik eskumara
Mirari Pérez Gaztelu,
José Ignacio Cabrerizo,
Iratxe Mugire eta Eduardo
Rodríguez Salgado.
Fotografía EAB



# JORNADAS DE ENFERMEDADES PROFESIONALES EN LAS ARTES ESCÉNICAS

Las jornadas se abrieron con Eduardo Rodríguez Salgado, en representación de ConArte, que hizo un breve repaso por los datos de la encuesta que realizaron, en septiembre de este año, entre 178 profesionales de la escena. El 51% de las personas encuestadas tuvieron más de cuatro lesiones a lo largo de su carrera profesional y un 38,8% entre dos y tres. El 47,5% indicaba que había trabajado con dolor en más de diez ocasiones. Sin embargo, el 87% afirmaba haber cogido solamente entre cero y dos bajas médicas derivadas del trabajo en escena en toda su vida laboral. Otro dato alarmante es que el 60,1% también aseguró haber trabajado con dolor en su último trabajo escénico.
Tras esa introducción, que nos hizo enfrentarnos de golpe a una problemática a la que damos la espalda frecuentemente, nos dimos de bruces con la realidad de los servicios de salud que cuidan de nosotras. Se dio paso a una mesa redonda formada por Mirari Pérez Gaztelu, médica foniatra y secretaria de SOMEF (Sociedad Médica Española de Foniatría), José Ignacio Cabrerizo, representante de la Unidad de Salud Laboral de OSALAN e Iratxe Mugire, fisioterapeuta especializada en Música y en Suelo Pélvico.
Son muchos los temas que se trataron, pero no tenemos espacio para informar sobre ello. Sabemos que en los años venideros la salud laboral de nuestra afiliación será una de las grandes cuestiones a abordar y profundizaremos en ello. De momento, cedemos el espacio a nuestra afiliada Jessica Alonso que, tras la mesa redonda, propició un breve debate enfocado en salud mental y artes vivas.

## Cambiemos esto

He escuchado muchas veces decir que las actrices y los actores jugamos con nuestras emociones. Y yo no estoy del todo de acuerdo. Creo que jugamos, sí, pero a sumergirnos en otros mundos, otras vidas, otras realidades, que vivimos de una forma verdadera, con honestidad, con nuestro corazón abierto y nuestra vulnerabilidad a flor de piel, y después se acaba el juego, abruptamente, al escuchar "corten" o cuando la cortina se cierra... *Boom* nuestra realidad nos envuelve de nuevo, pero nuestras emociones están mezcladas y nuestro monstruo interior, de colores, revuelto, como el cuento que le leo a mi hijo.
Este ejercicio tiene un impacto directo en nuestra salud mental, se quiera admitir o no. Lo tiene porque jugamos con nuestra humanidad, y eso requiere de un cuidado y de un respeto que, creo, no se está dando.
Por no entrar en la precariedad laboral, los contratos intermitentes, la falta de medios, pocas subvenciones, la falta de visibilidad, la conciliación familiar. La burbuja que nos confunde, tanto a nosotras y nosotros a veces, como al mundo que nos observa.
A veces somos nosotros mismos los que nos hacemos un flaco favor al aceptar cosas y pasar por situaciones que nos dañan, simplemente porque queremos trabajar. O, simplemente, para que no nos pongan la cruz y no nos llamen más.
Pero, a veces, por no decir un "no" a tiempo, hay artistas que han sufrido ataques de pánico antes de subir



El escaso tiempo que tuvimos para las sesiones grupales se dedicó a tratar el tema de salud mental en las artes escénicas.
Fotografía EAB

a escena, o por arte de magia han perdido la voz antes del estreno o, casualidad, se han lesionado antes del ensayo técnico. Y como consecuencia, algun@s han cogido pánico escénico, o lesiones graves, o directamente han dejado la profesión porque el disfrute ya no existía. Y todo por no parar quizás un día, por no hablar con un especialista, por no escucharse, por no respetarse, por no creer que se tenía el derecho de decir "mi instrumento no está bien afinado; tengo que afinarlo, recalibrarlo, cuidarlo. Cuidarme".
Cambiemos esto. Quizás suene a una utopía, pero en ciudades como Londres están empezando a implantar nuevos protocolos para mantener una buena salud mental entre todos sus trabajadores en el ámbito artístico. Sobre todo en compañías de teatro donde, por ejemplo, se pueden pedir días libres por cuidado mental. Donde tienen que tener al menos dos intérpretes que sustituyan al elenco principal para que estos no se quemen, donde se les hacen chequeos cada mes para saber si todo está estable, que no correcto.
Evidentemente esto es un lujo. No todas las compañías tienen un presupuesto para poder asumir estos costes pero también hay otras maneras de mejorar el soporte grupal y de sostenernos en giras largas, viajando y durmiendo poco.
Una de las cosas que yo sugerí en la compañía para la que trabajo, donde realizamos giras por diferentes países, donde hay gente que no puede traerse a sus hij@s y donde al final parece todo un gran hermano, era cada dos semanas hacer una Soul Awarenes, como un encuentro de conciencia del alma.
Nos juntábamos cada dos semanas, y compartíamos cómo nos sentíamos, nuestras dificultades, hablábamos de asuntos pendientes entre nosotros, nuestros miedos… El síndrome del impostor siempre nos hacía una visita, y la culpa también. Yo tengo un amplio conocimiento en terapia Gestalt, pero no soy terapeuta y, aunque dirigí estos encuentros al principio, a medida que las reuniones avanzaban, empezamos a profundizar más y más y ya le sugerimos al director que lo mejor sería contratar de forma puntual a un profesional, terapeuta o psicólog@.
El director vio los beneficios de estos encuentros –el grupo estaba más unido, mejor ambiente, menos desgaste vocal, debido posiblemente a la falta de tensión, más disfrute, tanto en escena como fuera– y, contra todo pronóstico, accedió.
Ahora otras compañías están planteándose implementar esto, y creo que es algo que se podría aplicar aquí también.
Al igual que en las escuelas de interpretación. Una conciencia de nuestra salud mental, un respeto y un cuidado, puede ser la diferencia entre continuar o abandonar una profesión, que, en mi opinión, es vocacional. Y si abandonas algo que te apasiona, que sea porque lo has decidido con conciencia y no porque no has podido gestionarlo o no han existido los recursos necesarios para transitar lo que te ha ocurrido.



**Jessica Alonso**

# PELLO GUTIERREZ

## ZINEMA-ANTZEZTE MINIMALISTA

Plazera izan da asteburuan Pelloren lan egiteko modua ezagutu eta antzezpen minimalistaren teknika deskubritzen joatea. Oierren kamera-lanak lagun eta fokuek gela set bihurtuta hasi gara, besarkada eta aurkezpen gutxi batzuen atzetik.

Eta abiatzeko casting bat, hitzik gabekoa proposatu digu, bakoitzari “neutroa” iruditzen zitzaion jarreran. Izan ere, ba al dugu norbere irudiak ematen duen horren kontzientziarik? Zer ematen du pantailan neutrotzat dudan jarrera horrek?

Hortik aurrera, hainbat ikasketa, erreferentzia eta praktika. Koadernoan ditut adibidez: “antzezpena laguntzen duten beste faktoreak kontuan hartu!”, “bi irudien arteko talkak hirugarren esanahi bat eman -Kulechov”, “emozioa gorde”, “Sobre lo infinito <3”…

Laburbilduz, gure antzezteko moldeetatik atera gaitu bere proposamenarekin, horretarako tresnak zein inspirazio iturriak ahalbidetuz. Pertsonalki, modu horretan gehiago lan egiteko gogoa piztu dit, kamerak xehetasunak harrapatzeko duen hori baliatuz, keinu txikietara itzultzeko, sotila denari begia jartzeko.

Eta sotil hitza aipatuta, bere etimologiari erreparatu nahi nioke (sub-azpiko, tilis-oihal), gure espresioa hari mota askorekin ehundutako oihal batekin alderatuz. Iruditzen zait, Pellorekin egindako lanean azpitik doan hari fin horren atzetik ibili garela, hari hori nola azaleratu, edo hobe esanda, nola ez estali saiatzen.



**Amaia Irazabal**



Zutunik Libe Mendizabal, Arantza Moñux,
Rakel Ezpeleta, Alain Elizalde, Alizia Otxoa,
Josune Gorostegi eta Pello Gutiérrez.
Belauniko Lorea Intxausti, Marijo Beníez,
Amaia Irazabal eta Aiora Sedano

Hiru egunetan Bilbotik Donostirako autobusa hartzeak nagia ematen zidan. Ez nuen Pello Gutierrez ezagutzen. Izena eman aurretik kuskuseatu nuen nor zen eta zertan aritzen zen. Itxura ona zuen. Zinema-antzezte minimalista zuen izenburu kursoak, ez nekien zehazki zer esan nahi zuen, baina hainbat zinema zuzendari aipatzen zituen eta horren inguruan ere kuskuseatu nuen.
Bere filmeetako eszena batzuk ikusi genituen eta nola gauzatu zituen kontatu zigun. Oso interesgarria iruditu zitzaidan istorioak kontatzeko modua eta erabilitako estetika. Gehiago ikusteko gogoz geratu nintzen.
Roy Andersson zuzendariaren eszena batzuk landu genituen taldeka. Hauek ensaiatu, grabatu eta ikusi genituen. Oso bitxia da interpretazio kode honekin sortzen dena ikustea, arrarotasun honek eragiten duena. Aportatzen dion komizidadea.
Pellok pauta batzuk ematen zituen eta aktoreek nola hauek jaso eta aldatzen zen interpretazioa oso polita izan da. Lehenengo planoan zer ikusten den eta nola lan egin behar den… ezer antzeztu beharrean barruan utzi azaleratzeko ahaleginik egin gabe eta nola irtengo da emozioa begien zirrikituetatik. Pelloren adierazteko modua asko gustatu zitzaidan, gauzak nola azaltzen zituen… eroso senti arazi zidan eta horrela lan egitea zoragarria da. Eskuzabala eta zintzoa. Gehiago sakontzeko gogoarekin geratu nintzen.



**Aiora Sedano**




EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
Gipuzkoako Foru Aldundiak
Diputación Foral de Gipuzkoa
Bizkaia
foru aldundia
diputación foral
Bilbao
aisge
FUNDACIÓN
bilbo eszena